

Ecozine

Zinema eta ingurumeneko
nazioarteko jaialdia

#UnPlanetadeZine

Golem Baiona
Iruña

Maiatzak 24-27



www.festivalecozine.es
www.educacionambiental.pamplona.es

eco
zine
asociación



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala



Ecozine Zinema

Jaialdia itzultzen da

Ecozine Zinema eta Ingurumenari buruzko Nazioarteko Jaialdia **lruñean** da berriz ere, sentitzeko, hausnartzeko eta ekiteko gonbidapena.

Zinema aldaketarako eta gizartea eraldatzeko arte gisa. Atal ofizialean lehiatzen diren nazioarteko dokumentalak eta film laburrak proiektatuko dira, eta ondoren eztabaida ireki bat egingen da emanaldietako gonbidatuekin.

Sarrera librea, aldez aurretik gonbidapea hartuta. Golem Baionako leihatiletan eskuratu ahalko dira, maiatzaren 17tik aurrera.





Maiatzak 24, astelehena. 19:30

Zumiriki

Espainia, 2019. 122 min. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin Gaztelaniaz eta euskaraz.
Zuzendaritza: **Oskar Alegria**.

Posible al da oroitzapen berera bi aldiz bidaiatzea? Oskar Alegria zinemagileak egurrezko etxola bat eraiki du ibaiaren ertz isolatu batean, haurtzaroan jolasten zuen uharte baten ondoan, zeina egun urpean baitago lurra ikusezin utzi duen presa baten eraikuntzaren ondorioz. Uharteko zuhaitzak ordea zutik diraute, jostailu apurtu baten giderrak balira bezala uraren erdian. Enborren arteko airea izanen da iragana berriz bizitzeko espazio bakarra.



Maiatzak 25, asteartea. 19:30

Rewild

Indonesia, 2019. 4 min. Hitzik gabea.
Zuzendaritza: **Nicholas Chin eta Ernest Zacharevic**.

Splash and Burn arte-aktibistaren kanpainako pieza, Leuser ekosistemaren mugetako basoen lehengoratzearen ondorioz. Narrazioa aurretik atzera doa, baso-soiltzearen erlojuari atzera emanez, produkzio ez jasagarriak eragindako kaltea desegiteko, planetako bioaniztasun-maila handienetakoa duen tokietako batean.



Titixe

Mexiko, 2018. 63 min. Gaztelaniaz.
Zuzendaritza: **Tanía Hernández Velasco**.

Familia bateko azken nekazaria hil da, eta harekin lurra lantzeko jakituria guztia galdu da. Esperientziarik gabe, haren alaba eta biloba (film honen zuzendaria) azken uzta tradizional bat egiten saiatuko dira, amona, nekazariaren alarguna, bere lurzatia mantentzeaz konbentzitzeko. Elkarrekin gizon horren eta bere munduaren aztarnak (tokian titixe esaten zaie) ezagutuko dituzte: zuhaitz bat doluan, kimu dantzariak, hodeien hizkuntza, mamuak, istorioak eta ekaitzaren ondorioz laboreak galtzeko mehatxu amaiezina. Obra hau familia mexikar baten azken uztaren barne-barneko mosaiko bat da, bere landa jatorria abandonatu duen herrialde batean.



Maiatzak 26, asteazkena. 19:30

La mer

Espainia, 2019. 2 min. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin.
Zuzendaritza: **Victor Claramunt**.

“Aski adimentsua naiz jakiteko...” Hori da hurrek esaten diguten oinarriko premisa. Gure itsasoak suntsitzen ari gara eta ez dugu ezer egiten hori aldatzeko.



El precio del progreso

Espainia, 2019. 80 min. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin.
Zuzendaritza: **Victor Luengo**.

“El precio del progreso” elikagaien industriaren erabakiak hartzeko gaitasunaren erretratua da. Zer da garrantzitsuagoa eta zein da hori eskuratzeko ordaindu beharreko prezioa. Europar Batasuneko hurrengo nekazaritzaren inguruko eztabaida gehienak mugatzen dituen premiazko testuinguruaren barruan, filmak esploratzen ditu azpijokoak, beldurrak, emozioak, presio politikoak eta funtsezko eragileen argudioak; besteak beste, presio-talde korporatibo, politikari, ospe handiko zientzialari eta nazioarteko elikadura-industriarekin lotutako ikerketa-kazetarien argudioak.

Zer dago jokoan elikaduraren dilemetan? Boterea, dirua edo osasuna?



Maiatzak 27, asteazkena. 19:30

Let's go to Antarctica

Espainia, 2019. 5 min. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin.
Zuzendaritza: **Gonzaga Manso**.

Carlos une honetan bertan Antartikan oporretan dagoen gizaki bat da. Pingüinoek ez dute kamerarik, eta erabat ahaztuko dute Carlos.



Maiatzak 27, asteazkena. 19:30

Urpean Lurra

Espainia, 2019. 50 min. Jatorrizko bertsioa, gaztelaniazko azpitituluekin.
Zuzendaritza: **Maddi Barber**.

Duela ia bi hamarkada Itoitzeko urtegiak Nafarroako Pirinioetako mendi-magaletan zeuden zazpi herri eta hiru erreserba natural urperatu zituen. Solidari@s con Itoiz talde ekologistak bideoan dokumentatu zuen haren eraikuntzaren aurkako borroka. Gaur egun, han egon ziren haiek ur azpian dagoen lurrarekin amesten dute. Haien ahotsek eta keinuek bat egiten dute orainera arte hedatzen den dolu indibidual eta kolektibo baten berri emateko.